

KONTROL MOZIOA

1813ko SARRASKIA OROITZEKO EKITALDIEI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañagak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko iraileko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

1813ko abuztuaren 31ko gertakarien oroitzapenezko ekitaldiek eztabaidagai izaten jarraitzen dute.

Sarraski bat izan zen. 1.000 donostiar baino gehiago hil zituzten. Bortxaketak, torturak eta lapurretak. Harrapaketak astebete iraun zuen. Eta zer gogoratzen dugun edo nola gogoratzen dugun, ez da kontu hutsala.

Urteetan zehar, gertaera modu apal baina duinean gogoratu izan da, Abuztuaren 31 kalean, argiak itzaliz eta kandelak piztuz iluntzean.

Azken urteotan, ordea, eta askotariko ekitaldiak ugaritu badira ere, desfile eta antzezpen militarrek nagusitu dira. Militarkeria gailentzen da, horren froga da aurtengo ekitaldien aurkezpen instituzionalean uniformedun soldaduak egotea. Portaleta edo Itsas Ateko lore-
eskaintzan elementu militarrek udal-agintariekin batera (udal-agintarien ondoan) sartzea ere gauza berria da.

Oroitzapen-ekitaldiak ez dira ekitaldi hutsalak, beste beste, horien bitartez ere gogoratzen dugulako; edo hori horien bidez, batez ere. Kontakizunik ez badago, ez dago oroitzapenik. Eta memoria gure nortasunaren oinarria da, bai norbanako gisa, bai gizarte gisa. Alvaro Bonet arkitekto madrildarrak ezin hobeto laburbildu zuen: “somos lo que recordamos que fuimos”.

Oroitzapen-ekitaldiak erritualak dira. Erritua gizartearen helburu, asmo eta balioen adierazpen sinbolikoa da. Errituak zentzua ematen laguntzen du. Komunikatu egiten du, zentzu partekatu bat transmititzen du. Irudimena, emozioak eta portaera-jarraibideak

modelatzen ditu. Udal Gobernuaren hitzetan, Abuztuaren 31 oroimenaren eguna da, “urtero Donostiak bere historiarekin eta bake eta bizikidetzaren balioekin duen lotura sendotzen duen memoria, errespetu eta kultura jardunaldia”.

Baina gaur egun oroitzapen-ekitaldiei gailentzen zaion izaera belikoak nekez transmitituko ditu bakearen eta bizikidetzaren balioak. Ez bada kontrakoa.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 1813ko abuztuaren 31ko gertaerak oroitzeko Donostiako Udalak antolatzen dituen ekitaldiak desmilitarizatzea.

Donostian, 2025eko irailaren 19an

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

EH Bildu udal taldeko zinegotzia